

<b>Eskaintzaren erreferentzia / Ref. de la oferta:</b> <b>LAB-EAZ-115</b>	<b>UPV/EHUko Enplegu Foroa</b> Foro de Empleo de la UPV/EHU	 Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
	<b>BIZKAIKO CAMPUSA</b>	

### **Enpresa-Erakundea / Empresa- Entidad**

LABORAL Kutxa

### **Lanpostua / Puesto:**

EAZ/EKONOMIAN unibertsitate-titulua lortu berriak

### **Lantokia / Lugar de trabajo:**

ZERBITZU ZENTRALEKO DEPARTAMENTU DESBERDINETAN, ARRASATEN

### **Egin beharreko zereginak edo eginkizunak / Tareas o funciones a realizar:**

- Barruko edo kanpoko bezeroen galderei erantzutea eta intzidentziak konpontzea.
- Saileko kudeaketa-software eta ofimatikako tresnak erabiltzea eguneroko lana egiteko.
- Dokumentuak eta txostenak egitea, sailaren beharren arabera.
- Sailari laguntzea jarduerak planifikatzen eta koordinatzen.
- Administrazio-prozedurak erakundearen politiken eta araudien arabera egiten direla ziurtatzea.

### **Eskatzen diren betekizunak / Requisitos exigidos:**

- EAZ, Ekonomia, Zuzenbide edo antzeko titulazioetako gradua.
- Euskara menderatzea (B2).
- Taldean lan egiteko gaitasuna, bezeroarenganako orientazioa, emaitzetarako orientazioa, dinamismoa eta erabakitze gaitasuna duten pertsonak.

### **Eskaintzen dena / Se ofrece:**

Garapen profesional handiko proiektu eraldatzaile batean sartzea, barne-sustapenerako aukerak eta etorkizuneko proiektzioa. Egituran txertatzea praktika-kontratu baten bidez. Horretarako:

- Talde-lana, elkarrekiko laguntza eta parte-hartzea sustatzen ditugu.
- Pertsonen trebakuntza bitzita profesional osoan garatzeko prestakuntza pertsonalizatzen dugu.
- Behar duzun malgutasuna eskaintzen dizugu, bitzita profesionalaren eta pribatuaren artean oreka egokia egon dadin.
- Erronka berriei aurre egin eta rol berriak hartu ahal izango dituzu.
- Zainduz gure osasun-programaren bidez zainduko zaitugu. Programa horren bidez, aukera izango duzu hauetaz gozatzeko: ohitura osasungarriei eta ongizate emozionalari buruzko tailerrak, fisioterapia digitalaren zerbitzua...

<b>Eskaintzaren erreferentzia / Ref. de la oferta: LAB-EAZ- 115</b>	<b>UPV/EHUko Enplegu Foroa</b> Foro de Empleo de la UPV/EHU	 Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
<b>BIZKAIKO CAMPUSA</b>		

Azken finean, lan-ingurune jasangarriak, integratzaileak eta errespetuzkoak eskaintzen ditugu, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna bermatzen dugu lan-dinamiketan eta lanbide-karreretan, eta berdintasunaren arloan erreferentzia izateko lan egiten dugu.